



Nota de prensa

Maiatzaren 25a, Afrikako Munduko Eguna

Afrikaren Nazioarteko Egunean, Afrikaren Aldeko Taldea osatzen duten erakundeek eta jatorri afrikarreko hainbat elkartek kontinentea hurbilduko diete euskal herritarrei.

Kultura- eta hezkuntza-jarduerak egingo dira Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban, eta doako topaketa digitalak, besteak beste.

(Bilbao, 2021eko maiatzaren 18a).

Maiatzaren 25ean, Afrikaren Mundu Egunean, kultura-, hezkuntza- eta mobilizazio-jarduerak egingo dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Afrikaren Aldeko Taldea osatzen duten GKEek eta jatorri afrikarreko hainbat elkartek sustatuta.

Gasteizen, jatorri afrikarreko migratzaileen elkarteek, maiatzaren 18tik 25era bitartean, hainbat jarduera egingo dituzte, hala nola Judimendi Gizarte Etxean arte-erakusketa bat edo Montehermoso Zentroan zinema afrikarra, besteak beste.

Bilbon, Anesvad Fundazioak, Saharaz hegoaldeko Afrikan Osasun Eskubidearen alde lan egiten duen erakundeak, San Mames argituko du berriz ere, 2019an egin zuen bezala, "Osasuna gelditzen bada, dena gelditzen da" alegatoarekin. Eta, gainera, hilaren 25, 26 eta 27an, Anesvad Sarien VI. edizioaren barruan, doako topaketa digitalak antolatu ditu Osasun globalari buruz hausnartzeko, Elsa Punset filosofoaren eta Rafa Bengoa osasun publikoan adituaren parte-hartzearekin, besteak beste.

Halaber, Bizkaiko jatorri afrikarreko migratzaileen elkarteek hainbat jarduera egingo dituzte maiatzaren 25ean, 28an eta 29an, hala nola hitzaldiak, tailerrak, artisau-merkatua, zinema eta ipuin kontalariak, besteak beste. La Terminal gunean izango da, Bilboko Zorrotzaurren, Afrika Eguna 2021 harrotasuna lelopean.



Nota de prensa

Gipuzkoan, TAU Fundazioak, Gipuzkoako Afrika Behar Beharrezkoa partzuergoko kide den aldetik (Proclade eta ACPPrekin batera), "ARAntzazu Afrikarekiko topaleku 2021" jardunaldiak antolatzen parte hartuko du aurten ere. Jardunaldi horiek Arantzazuko Gandiaga topagunean (Oñati) izango dira, aurrez aurre eta doan, ekainaren 5ean. Arantzazuko Adiskideak elkarteak ere hartuko du parte. Bertarutzen direnek Agnes Agbotonekin solasaldian parte hartu ahal izango dute, Beatriz Lealek zuzendutako Supa Modo filmeko zine forumean eta Hector Mediavilla argazkilariak gidatuko duen AFROTOPIA argazki erakusketa bisitatu ahal izango dute.

Afrikaren Aldeko Taldea Euskadin eta Nafarroan lan egiten duten GKEen kolektiboa da, eta interes berezia du Afrikan. "Munduko landaguneak" jarri zuen martxan 2005ean, eta gaur egun 16 erakundek osatzen dute.

Harremanetarako:

Josu Urrutia (euskaraz)

Telefonoa: 605728258

Olatz Ecenarro (gaztelaniaz)

Telefonoa: 608251794

gpa.aalde@gmail.com